

# Hezkidetzaren literaturaren bidez: Eskubideaz gain, gure betebeharra Gradu Amaierako Lana

Autoretza: Velasco Martínez, Begoña

Irakaslea: Perales Fernández de Gamboa, Andrea

**2021**

## Abstract

Hezkidetza etorkizuneko eta oraingo ikasgeletarako funtsezko tresna da; azken urteetan bai Eusko Jaurlaritzak (EJ) (2013-2018), bai Nazio Batuen Erakundeak (NBE) (2015) hezkidetzak duen garrantzia azpimarratu dute, gaur egun pertsonen artean sexuagatik eta generoagatik bereizkeria edo bazterkeria handia dagoelako. Lan honetan, hezkidetza literaturaren bidez lantzeko proposamen didaktiko bat aurkezten da, zehazki, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleentzat bideratua. Horretarako, lan honen proposamen didaktikoan emakumeak ikusgai jartzen dira emakume adierazgarrien adibideekin, eta genero-rolen estereotipazioaren eta sexismoaren kontrako hausnarketa sustatzen da. Hori guztia berdinen arteko ikaskuntza eta irakurketa dialogikoa metodologiaren bidez jorratuko da, tresna gisa euskarazko Haur eta Gazte Literatura (LIJ) hartuz. Aurretik aipatutako metodologiak errespetatzen dituzten ariketak proposatzeko, kontuan hartu dira Aidan Chambers-en *Dime: Los niños, la lectura y la conversación* (2007) liburuan azaldutako ideia, jarraibide eta ariketa batzuk eta, Yessica Pamela Ramirezen Basurtoren *Fomento a la lectura, alternativas para la formación de pequeños lectores* (2008) doktorego-tesian adierazitako zenbait ariketa. Lan honetan, hezkuntza-sistemak hezkidetza bermatzearen beharra azaltzeaz gain, lanean proposatutako unitate didaktikoaren bidez hezkidetza eta irakurzaletasuna sustatzeko aukera erakusten edo ematen da.

**Hitz gakoak:** Hezkidetza, sexismoa, genero-rolak, Haur eta Gazte Literatura, literatura feminista, irakurketa dialogikoa, berdinen arteko ikaskuntza

La coeducación es un instrumento fundamental para las aulas del futuro y presente; tanto el Gobierno Vasco (GV) (2013-2018) como la Organización de las Naciones Unidas (ONU) (2015) han hecho hincapié en la importancia de la coeducación en los últimos años, debido a la gran discriminación que se da hoy en día entre las personas por su sexo y género. En este trabajo se presenta una propuesta didáctica para trabajar la coeducación a través de la literatura en las aulas, dirigido a alumnado de tercer curso de Educación Primaria. Para ello, se visibiliza a las mujeres con ejemplos de mujeres representativas y se fomenta la reflexión ante la estereotipación de roles de género y sexismo; todo ello mediante una metodología de lectura dialógica y aprendizaje entre iguales, tomando como instrumento la Literatura Infantil y Juvenil (LIJ) en euskara. Para proponer ejercicios que respeten las metodologías anteriormente nombradas, se han tenido en cuenta las ideas, pautas y algunos ejercicios

expuestos en el libro *Dime: Los niños, la lectura y la conversación* (2007) de Aidan Chambers; y también se han considerado los ejercicios expuestos en la tesis doctoral *Fomento a la lectura, alternativas para la formación de pequeños lectores* (2008) de Yessica Pamela Ramirez Basurto. En este trabajo se muestra la necesidad y obligación que tiene el sistema educativo de garantizar la coeducación y la posibilidad de promover tanto la coeducación como la afición a la lectura mediante una propuesta didáctica.

**Palabras clave:** Coeducación, sexismo, roles de género, Literatura Infantil y Juvenil, literatura feminista, lectura dialógica, aprendizaje entre iguales

Coeducation is a fundamental instrument for the future and present classrooms. Both the Basque Government (BG) (2013-2018) and the United Nations (UN) (2015) have stressed the importance of coeducation in recent years, because of the great discrimination that exists today between people because of their sex and gender. This paper presents a didactic proposal to work coeducation through literature in the classrooms, aimed at students in the third year of Primary Education. To this end, in the proposal of this work women are made visible with examples of representative women and reflection on the stereotyping of gender roles and sexism is encouraged. To do so, we will be employing a methodology of dialogic reading and peer learning, using Children's and Youth Literature (LIJ) in Basque as an instrument. To propose exercises that respect the above mentioned methodologies, it has been taken into account the ideas, guidelines and some exercises presented in Aidan Chambers' (2007) book *Dime: Los niños, la lectura y la conversación* ; and also the exercises presented in the Yessica Pamela Ramirez Basurto's (2008) doctoral dissertation tesis *Fomento a la lectura, alternativas para la formación de pequeños lectores*. This senior thesis shows the need and obligation of the educational system to guarantee coeducation and the possibility of promoting both coeducation and readability by means of a didactic proposal.

**Keywords:** Coeducation, sexism, gender roles, Child and Young Adult's Literature, feminist literature, dialogic reading, peer learning

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Justifikazio pertsonala</b>	<b>6</b>
<b>3. Marko teorikoa</b>	<b>7</b>
3.1 Hezkidetzaren eskola	7
3.1.1 Hezkidetzaren beharra Europako ikuspuntutik (ODS/GIH)	9
3.1.2 Hezkidetzaren beharra Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren ikuspuntutik	9
3.2 Irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza	11
3.3 Haur eta Gazte Literatura: Hezkidetzarako tresna hezitzailea	13
<b>4. Helburuak</b>	<b>16</b>
<b>5. Proposamen Didaktikoa</b>	<b>16</b>
5.1 Helburuak	17
5.1.1 Proposamen didaktikoaren helburu orokorrak	17
5.1.2 Oinarrizko eta zehar konpetentzien helburuak	17
5.2 Edukiak (Heziberri 2020-an oinarrituta)	18
5.3 Metodologia	20
5.4 Sekuentzia didaktikoa	23
5.4.1 Fasea: Perpausaren jolasa	23
5.4.2 Fasea: Irakurketa kolektiboa	24
5.4.3 Fasea: "Edurnezuri" klasikoa berridazten	25
5.5 Ebaluaketa	26
<b>6. Konklusioak</b>	<b>27</b>
<b>7. Mugak eta lana hobetzeko proposamenak</b>	<b>29</b>
<b>8. Erreferentziak</b>	<b>31</b>
<b>9. Eranskinak</b>	<b>36</b>
9.1 Eranskina: NBE-ren Garapen Iraunkorreko Helburuen eskema	36
9.2 Eranskina: 1. faseko ipuin zerrenda	36
9.3 Eranskina: 1. faseko ikasleentzako oinarrizko galderen fitxa	36
9.4 Eranskina: 2. faseko irakaslearentzako galdera fitxa	37
9.5 Eranskina: 3. faseko irakaslearentzako galdera fitxa	38
9.6 Eranskina: Ebaluazio errubrika	39
9.7 Eranskina: Ikasleei egindako ebaluaketa galderak	43

## 1. Sarrera

Soldata-aldea, genero-indarkeria, kristalezko sabaia edo misoginia hitzak entzutea normala da gure egunerokotasunean. Hitz hauek "normalak" edo "arruntak" dira, gizonak eta emakumeak berdintasun-egoeran bizi ez diren gizartean bizi garelako. Bidegabekeria honi aurre egiteko tresna anitz daude, baina eskoletan zentratuz, hezkidetza azpimarratzekoa da. Hezkidetza, era oso simple batean definituz, heziketa mota bat da eta honen helburua ikasle guztiei ikasteko aukera berdinak ematea da, beraien genero eta sexuari erreparatu gabe.

Hezkidetza, gure hezkuntza-sistemak oraindik lortu ez duen jomuga edo helburua da, naiz eta ikasleen eskubidea izan. Hau dela eta, hezkidetza sustatzeko Unitate Didaktiko (UD) bat proposatuko da Gradu Amaierako Lan (GrAL) honetan. Proposamen honen helburua hezkidetza literaturaren bidez lantzea da. Horretarako, UD-an landuko diren gai eta materialei buruzko ikerketaren adierazpena emango da GrAL-aren marko teorikoan. Atal honetan, hezkidetzari buruzko termino edo teknizismoen azalpena adierazteaz gain, Eusko Jaurlaritzak (EJ) eta Europa mailan hezkidetzaren aldeko zenbait lanei, planei edo proposamenei buruzko azalpena emango da. Baita ere, irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza metodologiei buruzko argibideak emango dira atal honetan; eta proposamenean erabiliko den HGL-ren materialei buruzko azalpena. Proposatutako UD-an zentratuz, lanean zehar honen honen nondik norakoak azalduko dira. Esaterako, proposamenaren hiru faseak, ariketak eta erabiliko den metodologia, hau da, irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikasketa Aidan Chambersen "dime" metodologiaren bidez.

Laburbilduz, lanean hezkidetzaren beharra eta garrantzia adierazteaz gain, haur eta gazteei bideratutako literaturaren baliagarritasunaren berri emango da; berdinen arteko ikaskuntza eta irakurketa dialogikoaren ("dime" metodologia) bidez etorkizunean praktikara eraman ahal deneko UD bat proposatuz.

## 2. Justifikazio pertsonala

GrAL honen gaia aukeratzeko orduan bi arrazo nagusi aurkitu nituen: Alde batetik, irakurketa heziketa tresna baliagarri eta beharrezkoa dela konturatu naizelako eta hezkidetza gaia klasean maiz entzun dudan teknizismoa izan delako baina inoiz ez naiz gaian asko murgildu. Hortaz, GrAL-a bi gai hauetan nire jakintzak hedatzeko aukeratzat hartu dut.

Txikitan ez nuen irakurketa gustoko, baina nerabea nintzenean oso irakurzale bihurtu nintzen eta gaur egun, hezkuntzan irakurketaren beharraz eta garrantziaz jabetu naizenez, literatura heziketa tresnatzat erabiltzeko aukerari ekin nahi diot. Gero eta gazte irakurzale gutxiago daudela esaten da eta nire ustez egoera honi buelta emateko aukera eskoletan dugu. Edozein pertsona, bere ikasketa prozesuan zehar milaka testuetaz baliatu beharko da, hortaz, testu hauei ilusioz eta motibatuta ekiteko, lehendabizi, irakurlearen gozamenerako sortutako literaturaz gozatzeko aukera eman nahi diet ikasleei. Gainera, betidanik izan dudan beste grina bat ipuin edo liburu bat idaztea izan da, beraz, GrAL honen bidez helburu honen antzeko zerbait lortzea espero dut. Esaterako, UD-aren azken fasean ikasleekin amaiera anitzeko ipuin bat sortuko baita.

Bestalde, nire burua feministatzat hartzen dut eta nire irakasle filosofiaren jomuga bat emakumeon ahalduntzea eta askatasuna sustatzea da. Hau da, nire helburua gizartean emakumeen garrantzia eta beharra adieraztea da, gure eskubideak errespetatu eta bete daitezen. Horretarako, hezkidetza gaiari buruzko ikerketa egitea probetxugarri eta beharrezkoa ikusten dut, baina ez nuen soilik ikerketa bat egin nahi baizik eta praktikara eramán ahal den proposamen batean murgildu gaiari buruzko hausnarketa sakonagoa egiteko.

Azken finean, nire GrAL-erako aukeraketa oso erraza izan zen, nire etorkizunerako erabilgarriak eta beharrezkoa diren gaiari buruzko ikerketa eta proposamena egin dudalako nire irakasle filosofiaren zenbait helburu betez.

### 3. Marko teorikoa

#### 3.1 Hezkidetza eskolan

Hezkidetza maiz entzun izan den terminoa da eta honen helburu nagusia berdinen arteko lotura lortzea da, banakoen arteko desberdintasunak sendotuz eta genero, klase, etnia eta kultura taldeek egiten dituzten ekarpenak baloratuz (Blat, 1994). Hau da, hezkidetza hezkuntzarako giza eskubidean oinarritutako hezkuntza da, ikasleen jatorria, generoa edo ahalmenak kontuan hartu gabe. Beraz, Pallaresek adierazten duen bezala, “hezkuntzan hezkidetza funtsezko gizarte-grina eta hezkuntza-eremurako betebeharrak moraltzat hartu behar da” (2019, 34 orr).

Askotan, hezkidetza hezkuntza mistoaren sinonimotzat hartzen da. Hezkuntza mistoa, neska-mutilek curriculum eta espazio bera partekatzean datza (Subirats, 2017). Segregazio hau (neska vs. mutila) genero ikuspuntuan oinarritutakoa da eta ez ikuspuntu pedagogikoan. Generoa kultura-eraikuntza bat da, eta, sexuaren<sup>1</sup> arabera rolak, identitatea eta ekintza-egoerak ezartzen ditu, gizonen eta emakumeen artean modu segmentatuan (Espejo, 2010). Hezkidetza, hezkuntza mistoa ez bezala, mutil eta nesken arteko baterako existentziatik haratago doa. Subiratsek baieztatzen duen moduan “*kontua ez da mutilak neskak bezala heztea, baizik eta haien sozializazioaren alderdi kaltegarriak ezabatzea, eta ukatu edo moztu zaien guztia konpentsatzea*” (2017, 59. or.).

Horretarako, hezkidetzaren helburu bat sexismoaren eta estereotipoen kontra egitea da. Estereotipoak, pertsonen beren, itxura, genero, adin eta une historiko bakoitzean esleitutako portaera, funtzio, jarrera, balio eta ezaugarri sinboliko, sozial, politiko, ekonomiko, juridiko eta kulturalen multzoa da (Etxaniz et al., 2019). Estereotipoek hurren identitatearen edo nortasunaren formakuntzan gero eta eragin handiagoa izaten dute, beraien jarreretan, portaeretan eta izaeran ondorioak utziz.

Sexismoa, aldiz, sexua, bizitza sozialean sortutako gaitasunak, balioak eta esanahiak esleitzeko irizpide gisa erabiltzen duen diskriminazioa da (Sau, 2000). Hau da, gizartearen eta kulturaren arteko orekan oinarrituta, gizarteak errealitatea bi kaxatan antolatzen du: “hau femeninoa da” eta “hau maskulinoa da” (Umaña, 2004). Baina, gizarteak bi kaxatan edo taldetan antolatuta egon beharrean, bi mailatan antolatzen da: gizonak eta emakumeak. Maila gorenean gizonak kokatzen dira, boterea eta garrantzia dutelako; bestaldean, maila

---

<sup>1</sup> Sexua: aldagai genetiko eta biologiko gisa definitzen da, gizakia bi sexutan banatzen duena ugalketa-aparatuen arabera: emakumezkoa edo gizonezkoa (Gimenez, 2016).

horren azpian emakumeen maila dago, sumisioa eta gizonezko baino garrantzia edo balioa gutxiago dugulako (Sanchez eta Iglesias, 2008). Sexismoa gizonak emakumeak baino hobek direlako pentsamendutik sortzen da, nahiz eta, frogatu izan da hori ez dela egia (Filosofía & Co., 2021).

Gizarte sexista batean, gizona emakumea baino hobea dela uste denez, gizonak, emakumeak ez bezala, askatasun osoa dute eta giza-eskubide guztietaz gozaten dute. Maiz, emakumeei deuseztatutako eskubideak gizonen pribilegiotzat hartzen dira; baina hitz hori (pribilegioa) errealitatearen eufemismoa da (Barreto et al., 2014). Hots, gizartearen hierarkian gizonak emakumeak baino goragoko posizioan jartzean, ez zaie gizonei pribilegioak ematen, baizik eta emakumeei giza eskubideak kentzen zaizkie. Esaterako, emakumeen botorako eskubidea, abortatzeko eskubidea, zaintza lanak ordainduak izateko eskubidea, gidatzeko eskubidea, hezkuntza duina izateko eskubidea, feminismoaren aktibismo sozialaren aldarrikapen eta borroketatik eskuratu diren oinarrizko eskubideak izan dira. Aurreko adibide guztiak ez dira gizonek ditzuten pribilegioak, giza eskubideak baizik, eta arazo nagusia zera da: gizartearen historian zehar legeak gizonezkoentzat eta gizonek egindakoak direla; emakumea kontuan izan gabe, emakumea gizartearen parte ez balitz bezala (Cosse, 2008). Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna nabaria izateaz gain, gizarte-egituran intrinsekoa da, gizarteak bere kabuz edozein diskriminazio justifikatzeko (Graziosi, 2004).

Edozein aldaketa soziala emateko, kasu honetan genero berdintasuna eta ekitatea, hezkuntza mailan aldatu nahi diren alderdi hauek landu behar dira. Noski, horretarako, hezkuntza komunitateko kideek (irakasleak, pedagogoak, familiak...) aldaketa hauen alde egon behar dira eta ahalegin handiak egin behar dituzte. Hots, aurreko hau lortzeko, hezkuntza komunitateak gobernuen edo erakundeen laguntza edo sostengua behar du. Esaterako, curriculum berrituz eta hezkuntza legedia aldatuz. Hau dela eta, hurrengo paragrafoetan hezkidetzaren alde egindako europar zein euskal ahaleginen berri emango da, UNESCO-ren (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) Agenda 2030-rekin eta EJ-ren (Eusko Jaurlaritzaren) hezkidetzaren aldeko bi planak jorratuz.



### 3.1.1 Hezkidetzaren beharra Europako ikuspuntutik (ODS/GIH)

UNESCOren eta munduko herrialde gehienen legislazioaren arabera, pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea, haien generoa, etnia edo egoera ekonomikoa kontuan hartu gabe. Bestalde, 2015ean, NBEk (Nazio Batuen Elkarte), garapen iraunkorreko agenda berri baten zati gisa, Garapen Iraunkorrako Helburu (GIH) globalen multzo bat onartu zuen, 2030ean betetzeko: pobrezia errotik kentzeko, planeta babesteko eta pertsona guztientzako oparotasuna ziurtatzeko.

Helburu horiek herritar guztiei zuzenduta daude, izan ere, jomuga horiek lortzeko, mundu guztiak egin behar du bere zatia: gobernuek, sektore pribatuak, gizarte zibilak eta norbanakoak (Nazio Batuak, 2015). Hamazazpi helburu (9.1. eranskina: NBE-ren Garapen Iraunkorreko Helburuen eskema ikusi) hauen artean, aipatzekoak dira 4. eta 5. helburuak: “Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat (4. helburua) eta Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea (5. helburua)”. Lan honetan zehar helburu horietan murgilduko gara, hezkidetzaren bidez bi helburu hauek betetzen direlako. Beraz, gizakion historia eta UNESCO-k eta ONU-k adierazitako kontuan izanda, gaur egun, ez da beharrezkoa hezkidetzaren justifikatzea, hezkidetzaren ez baita aukera bat, hezkuntza-betebeharra baizik.

### 3.1.2 Hezkidetzaren beharra Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren ikuspuntutik

Kontuan izanik lan honetan proposatzen den unitate didaktikoa euskal eskoletara zuzenduta dagoela, Eusko Jauriaritzak (EJ) hezkidetzaren alde sortutako bi planen azterketa adieraziko da hurrengo atalean, bigarren planean zentratuz. Hau da, *Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (2013-2017)* eta *EAE-ko Hezkuntza sistemarako II.hezkidetzaren plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023* dokumentuak.

EJ-k egindako heziketaren aldeko bi planek oinarritzko hiru helburu dituzte: Hezkuntza saila eta sistema osoan zehar heziketaren aldeko prestakuntza ematea, ikastetxeek beraien kulturaren, politikaren eta jardunbideetan genero-ikuspegia txertatzea eskola mistoetan eraldaketa prozesu bat emanez, eta azkenik, emakumeen aurkako genero indarkeria prebenitzeko eta detektatzeko erantzuna eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea. Hona hemen bi planen helburuak eta helburu hauek betetzean lor nahi diren jomugen konparaketa:

	<b><i>Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren lantzeko Gida Plana (2013-2017)</i></b>	<b><i>EAEko Hezkuntza sistemarako II.hezkidetzaren plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023</i></b>
Helburuak	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonen. (irakasleak formatzea)</li> <li>2. Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzako eskola baterantz joateko</li> <li>3. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.</li> <li>2. Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea.</li> <li>3. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea</li> </ol>
Jomugak	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakasleen sentsibilizazioa hezkidetzan, sexu eta afektibitate aniztasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioan.</li> <li>2. Ikastetxe askori berariazko prestakuntza ematea eskola mistoa eraldatzeko prozesuak abian jartzeko, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatuko dituen eskola baterantz.</li> <li>3. Ezaugarri eta egoera soziokultural ezberdinak dituzten hamar ikastetxe pilotutan proiektu integralak garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako ikastetxeentzat eredu eta erreferentzia izan daitezkeen.</li> <li>4. Ikastetxeetan hezkidetzako irakasle arduradunak eta Ordezkaritza Organo Gorenetan berdintasun-ordezkaria izendatzea, eta hezkuntza-komunitate osorako koordinazio- eta partaidetza egiturak sortzea.</li> <li>5. Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, Hezkuntza Ikuskaritza, irakasleei laguntzeko zerbitzuan, ISEI-IVEIn) hezkidetzako eta generoindarkeria prebenitzeko arduradunak izendatzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.</li> <li>2. Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea</li> <li>3. Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.</li> <li>4. Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea</li> <li>5. Berdintasuna sartzea ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean</li> <li>6. Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.</li> <li>7. Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.</li> <li>8. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea.</li> </ol>

Halaber, nahiz eta bi planak oinarri berdinak izan, 2019-2023ko plana 2013-2017 plana baino zehatzagoa da, hezkuntza maila guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen hezkuntza zein Bigaren Hezkuntza) hezkidetzaren aldeko zutabeak landuz. Hezkidetzaren zutabe nagusi hauen barnean eskoletan garatu beharreko ekintza sistematikoak agertuko dira; horren bidez, berdintasuneko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa landuko da, mailaz-maila (2019).

Azpimarratzekoa da planaren kudeaketa osoan zehar aurrera eramandako mintegi formatzaile, ariketa eta abarreko lanketaren ebaluaketa emango dela. Esaterako, 2013-2017 planeko ebaluazioa oso baliagarria izan da *EAE-ko Hezkuntza sistemarako II.hezkidetzeta plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023* moldatzeko. Eta berriz ere, nahiz eta bi planak oinarritzko helburu berdinak izan, lehenengo planaren ebaluazioari esker, EAE-ko Hezkuntza sistemarako *II.hezkidetzeta plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023* oinarritzko helburuak zehaztu dira hezkuntza komunitatearen kideei hezkidetzeta lantzeko bidea erraztuz.

Adierazgarria da bi plan hauek hezkidetzeta eskolen oinarritzko alderdi bat izateko tresna direla, hau da, hezkidetzeta heziketa komunitateko atal erabilgarria eta behar-beharrezkoa dela adierazten da. Beraz, plan hauetan zehar ez dira eskoletan egin ahal direneko ariketak edo proiektuak azaltzen, momentuz, heziketa komunitatearen helburua hezkidetzeta eskolen ardatza izatea baita.

Hortaz, lan honetako proposamen didaktikoa Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikasleei zuzenduta dagoenez, hau sortzerako orduan EAEn zein Europan hezkidetzaren alde egindako planen edo proposamenen (Eusko Jaurlaritzak sortutako bi planak eta UNESCO-ren Garapen Iraunkorreko Helburuen programa) helburuak, oinarri ideologikoak eta aholkuak kontuan izan dira. Halaber, hezkidetzeta gai ardatzat izanda, proposamenean erabiliko den metodologia irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza izango da, testu literarioen bidez irakurzaletasuna sustatzeaz gain, berdintasunaren aldeko hezkuntzarengatik apustua egiten delako .

### **3.2 Irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza**

Euskal curriculumean (Heziberri 2020) adierazten den moduan Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako (D.L.H) lehenengo mailako ikasleek ikasturtea irakurtzeko eta idazteko ahalmenarekin bukatu behar dute eta beste kurtsoetan zehar gaitasun hauek findu eta

hobetu behar dituzte. Baina, jakina da eskola bakoitzak bere egoera propioa duela eta teoria hau praktikan jartzea ez dela erraza izaten. Irakurketa eta idazketaren oinarria, alfabetoa, jakintza edo tresna oso abstraktoa izaten da ikasleentzat (Fons, 2004). Hots, askotan ikasleek irakurketa mekanikoa egiten dute; hau da, hitzen fonemika ahoskatzen dute baina ez dute guztiz hitzak deskodifikatzen (Castillero, 2021). Beraz, ez dute ulertzen irakurritakoa, ez dute testuaren mezua barneratzen. Gainera, Bakhtin-ek (1986) adierazten duen bezala, hizkuntza anbigua da, gizakiok mundu objektibo, subjektibo eta sozial desberdinak ditugu eta hauetan oinarritzen gara testuei zentzua ematerakoan. Hortaz, maiz, testu berdinean mezu ezberdin aurkitu ahal dira, hartzailearen aurrejakintzetan oinarrituz.

Aurreko paragrafoan azaldu diren zailtasunei aurre egiteko, irakurketa dialogikoa tresna aproposa da, honek abantaila anitz dituelako. Irakurketa mota honen oinarria, berdinen arteko komunikazioa da (Flecha, et al., 2008). Hau da, metodo honen bidez ikasleek testu berdina irakurriko dute, guztiak batera, txandaka edo bakarka; eta behin testua irakurrita honi buruzko eztabaida irekia emango da. Era honetan, eta irakurketa mekanikoa alde batera utzita, jolasteko edo gozatzeko ez ezik, ulermenezkoa, inferentziala eta gogoetatsua den irakurketa emango da behin irakurketa egin ondorengo elkarrizketan edo dialogoan. Eta ikasleek, irakurritako testuari buruzko perspektibak, ondorioak, usteak eta hipotesiak partekatu ahal izango dituzte. Ondorioz, ikasleek beren gaitasun linguistiko eta komunikatiboen bidez, beraien irudimenezko eta hipotesiak egiteko ahalmenak landuko dituzte.

Bestalde, pentsa ohi da irakurketa ariketa indibiduala dela, baina metodo honen bidez eta Vigotskiren (1978) ikuspuntu soziokulturala kontuan izanda, aurretik esleitutako ideia hau kolokan jarriko da. Irakurketa dialogikoaren bidez, ikasleak ariketa edo ekintzaren protagonistak bilakatzen dira talde bezala, berdinen arteko ikasketa landuz. Halaber, ikasketa prozesu honen bidez, ikasleak ezagutzak eraikitzeke gai izango dira, norberaren edo ikaskideen aurreko ezagutzetan oinarrituta (Peñalva eta Leiva, 2019). Gainera, ikasleek ikuspuntu dibergenteen arteko gatazkak konpontzeko gaitasuna ere landuko dute. Hau da, ikasleak erantzun zuzen bakarra ez dagoela ohartzeko gai izango dira, eta ikuspuntu desberdinen ondorioz gerta daitezkeen gatazkak erregulatzeko gai izango dira. Halaber, elkarren arteko erregulazioa hizkuntzaren bidez landuko dute, komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunak hobetuz. Bestalde, prozesu honetan, oro har, esanahien eraikuntza sustatzeaz gain, motibazio- eta afektibitate-mekanismoak ere sortzen dira, eta mekanismo horiek zentzu praktikoa eman diezaiokeke landutako gaiari, ikasketa esanguratsua emanez.

Eta irakurketa dialogikoari esker, bakarka lana egitea eta lan taldeak osatzen dituzten ikasleen artean lankidetzaren egokia eta solidarioagoa sustatzen da (Flecha et al., 2008).

Azkenik, irakurketa dialogikoaren bidez berdinen arteko ikasketa lantzen da eta ikasleek ikasketa prozesuaren protagonistak bilakatzen dira; ondorioz, irakaslearen funtzioa ez da ikasketa tradizionalerako rola izango, irakaslea tutore edo gidari lana egingo du. Era honetan, irakaslea ez du ikasleak edukiaz beteko, baizik eta ikasleei bide egokia erakutsiko die. Hau da, terminoren batekin nahasten badira zuzendu egingo ditu edo ikasleei informazio-iturriak emango dizkie, beraiek beraien buruak edo beraien ikaskideenak zuzendu ditzaten (Sanchez, 2015). Bestalde, irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza aurrera eramateko, berebiziko garrantzia hartzen du metodologia hau lantzeko erabiliko diren materialak, hau da, ikasleek irakurriko dituzten testuak. Horretarako, irakaslearen betebeharra da Haur eta Gazte Literatura (HGL) gaiaren nondik norako berri izatea eta formatzea, ondoren, hezkidetzaren HGL eta irakurketa dialogikoaren sustatzeko gai izateko.

### **3.3 Haur eta Gazte Literatura: Hezkidetzarako tresna hezitzailea**

XIX. mendean, errusiar formalistek, literaturaren ikerketari ekin zioten. Pertsona talde honek literatura aztertu zuten, literaturaren ezaugarriak zeintzuk ziren definitu ahal izateko eta horrela literatura dena eta ez dena bereizi ahal izateko. Formalisten ikuspuntuan oinarrituta, literatura hizkuntz arauen desbideratze-multzoa da (Eagleton, 1998). Hau da, literatura, hizkuntza era ez ohikoan erabiltzea da. Bestalde, Euskaltzaindiaren hiztegian literatura hitza bilatzean, honako definizio hau aurkitu ahal da: *“Hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea; era horretako idazlanen multzoa edo multzo jakin bat”* (2020). Hortaz, definizio hau erantzun bezala hartuta, literatura artea da. Eta azkenik, literatura artea izanda, kontuan izan behar da artearen helburu nagusia hartzailarengan zerbait sentiaraztea dela. Hortaz, literaturaren helburuak definitzeko hiru alderdi kontutan izan behar dira: informazioa, emozioa eta sentimenduen adierazpena, irakurlearengan gozamina sortzea eta hizkuntzaren erabilera ez ohikoa sustatzea (Berenguer eta Villavicencio, 2017).

Literaturaren erabilera didaktikoan sakondu baino lehen, literaturaren nondik-norako berri izan behar da. Literaturaren helburu bat, artearena bezala, istorio bat kontatzea (errealak edo fikziozkoak) edo gizakiak bere sentimenduak, ezinegonak, ideiak, edo iritziak adieraztea da. Arteak aldakorra izan arren, badago aldatzen ez den ezaugarri bat, arteak plazerra eragiteko sortzen dela, alegia. Hots, literaturaren jomuga, hizkuntza narratiboa ez bezala,

irakurlearengan gozamina sorraraztea da (Brecht, 1984). Eta alderdi honi ezin zaio inoiz uko egin. Edozein hartzailek, testu literario (orala zein idatzia) bati eusteko, testua atsegin, gozatu edo maite behar du. Honen adibidea da irakurle errearen itxaropenak bete ez ditueneko liburu multzoak; edozein etxeko apalategian aurki ditzakegun erdi irakurritako liburu horiek. Eta aurreko paragrafoan azaldu den bezala, errusiar formalistek literatura hizkuntza era ez ohikoan erabiltzea dela adierazi zuten. Hau dela eta, autore literario askok literatura hitzekin jolastea dela deritzote, eta ez al da jolasa umeen gogoenetako eginkizuna?

Aurreko paragrafoetan azalduakoa kontuan izanez, Haur eta Gazte Literaturaz (hemendik aurrera HGL) jardungo gara. Adar honek, literaturaren ezaugarri guztiak betetzeaz gain (hizkuntzaren erabilera berezia, hartzailearen gozamenerako sortua izatea eta informazioa, emozio edo sentimenduen adierazpena ematea), bere ezaugarri propioa du, haurrei eta gazteei zuzendutako literatura da. Hau dela eta, HGL-ren betebeharra umea edo gaztearen beharrei erantzuna ematea da, beti ere, literaturaren alderdi ludikoa ustiatuz (Cerrillo, 2007).

Baina aurretik azalduakoa literaturaren hiru helburuz edo ezaugarriaz gain, HGL-k badu beste helburu bat zeinak HGL-ko kontsumitzaileek ez dutena ikusten. Helburu hau ideien edo ideologiaren helarazpena da. Antzinar, Erdi Aroan, menderatzaileek indarra erabiltzen zuten herria kontrolatzeko eta moldatzeko, baina denboraren poderioz eta demokrazia sustatuz, menderatzaileek ez dute indarra ia erabiltzen, orain askoz ere tresna boteretsuagoa erabiltzen baitute: diskurtsoa (Cassany, 2006, 49 or.). Literatura beti izan da balioak transmititzeko tresna (Etxaniz, 2011). Hortaz, ipuin bat umei zuzendutako diskurtso dibertigarri eta politizatzaile har genezake. Honen adibide argiak, antzinar, ahozko literaturaren bidez bakarrik transmititzen zireneko kondairak dira; hala nola, belaunaldiz belaunaldi eta ahotik ahotara helarazten zireneko istorioak. Baina istorio guzti hauek beti-beti moralarekin konektatutako mezu edo lezioa transmititzen dute. Esaterako, artzainaren istorioa, beti "otsoa dator, otsoa dator" esaten zuenak; hainbat modutan kontatu daitezkeen historia da, halaber, beti mezu bera transmititzen duen kondaira izango da.

Gainera, kontuan izanez HGL bi sozializazio-eragile nagusiek (eskolak eta familiak) erabiltzen duten lehen kultura-produktuetako dela, HGL-ri merezi duen garrantzia eman behar zaio; tresna komunikatiboa, ludikoa, informatiboa izateaz gain, balioen eta ideien transmisiokoa baita, ikasleei beraien inguruko munduaren irudikapen bat eskaintzen dien elementua bilakatuz (Etxaniz et al., 2019).

Maiz, pentsa ohi da, euskarazko literatura gutxi sortu egin dela, eta are gehiago, euskal HGL, baina, gaur egun literatura hau “modan” dagoela esan ahal da, euskal egileek eta argitaletxeek ahalegin handiak egin dituztelako euskal HGL-ri bultzada bat emateko. Halaber, gaztelaniaz edo munduko beste hizkuntzetan sortutako HGL-rekin konparatuz, euskal HGL-ren corpusa urria da. Honen zergatia Amaia Alvarez-Uriak (2008) azaltzen du esaten duenean euskal HGLn lantzen diren gaiak ez direla kanonikoak, alegia garai batean ontzat eta kontuan hartzen diren ezaugarri literario konkretu batzuk ez dituztelako betetzen. Hain zuzen ere, Teresa Colomerrek (2010), maiz adierazi izan du HGL kultura-produktu gisa garatu dela kontsumo-gizarte batean. Beraz, HGL-ren ekoizpen-testuinguruak aldaketa handiak izan ditu. Alde batetik, aldaketa honek eroslearen onurarakoa izan da, gai eta hizkuntza anitzetako aukerak daudelako merkatuan. Baina desanbantaila ere bada, liburu eta ipuin ineteresgari, baliagarri edo aproposak katalogotik kentzea, salmenta-baldintzak betetzen ez dituelako.

Horren adibide dira azken urteetan umeentzat idatzi diren istorio motak: kasu gehienetan, mutil baten bizi esperientziak kontatzen dituzten istoriak daude. Esaterako: *Geronimo Stilton* (Dami, 2000), *Urtziren diarioa* (Kazabon, 2003), *Ezekiel* (Osoro, 2009)... Liburu hauek lehen aipatutako kanonaren adibideak dira. Baina literatura kanonikoa izateak ez du esan nahi hoberena edo egokiena denik; baizik eta erraztasun handiago izango duela argitaratua izateko. Hots, kontuan izan behar da literatura kanonikoa, gehien bat, androzentrista eta etnozentrista dela. Beraz, Zubeldiak (2003) proposatu zuenatik abiatuta, proposamen didaktiko honetan zehar literatura kanonikotik aldentzeko irakurketa alternatiboak edo anti-kanonikoak lantzeko saiakera egingo da.

Bestalde, literatura heziketa tresna bezala erabiltzeak beste zailtasun bat dakar bere baitan, literatura, soilik, instrumentu didaktiko bezala lantzea. Literatura instrumentala didaktikan oinarritutako testu literarioak edo testuliburuaren aplikaziorako irakurketa-liburuak dira (Gutierrez, 2016). Hau da, material hauetan ez dira kontuan izaten ikasleen beharrak edo nahiak, literatura honek aintzat hartzen duen gauza bakarra ezagutza curricularrak dira, ikasleen gozamenari erreparatu gabe. Hau dela eta, proposamen didaktiko honetan umeentzat eta gazteentzat sortutako literatura erabiltzearen saiakera egingo da. Mota honetako literaturaren ardatza haurrak literaturaz gozatzen duten bitartean ikastea da (Sanchez et al., 2017).

#### 4. Helburuak

Gradu Amaierako lan honen helburua hezkidetzaren literaturaren bidez lantzen duen unitate didaktikoa sortzea da. Horretarako, proposatutako unitate didaktikoak 4 helburu ditu bere baitan: klasean hezkidetzaren sustatzea, ikasleek beraien ikuspegi propioa eta kritikoa sortzeko eta adierazteko aukera edo gaitasuna lantzea, irakurzaletasuna piztea eta ikasleek euskararekiko duten jarrera hobea bilakatzea.

Hezkidetzaren gaian murgilduz, 3. *Marko teoriko* atalean azaldu den moduan, hezkidetzaren lortzeko, lan honetan NBE-k proposatutako bi Garapen Iraunkorreko Helburu jomugatzat izango ditu. Alde batetik, laugarren helburua, hau da, *“Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztiontzat”*; eta, bestalde, bosgarren helburua *“Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduz”*. Aurreko hau, proposamen didaktikoaren lehenengo fasean landuko da, genero rol eta estereotipoen kontra egiten duten testuak irakurriz eta hauei buruzko hausnarketa dialogikoa eginez. Halaber, sexismoaren kontra egiteko euskal historiako emakume adierazgarri baten berri emango da bigarren fasean eta hirugarren fasean ipuin klasiko eta sexistari buruzko gogoeta egin ondoren, honen berridazketa egingo da.

Gainera, lan honen proposamen didaktikoaren bidez ikasleak pertsona kritikotzat hartzen eta beraien ikuspegi adierazten trebetasuna lantzea. Era honetan, ikasleek beraien ikuspegi propioa eraikitzeko eta jakinarazteko aukera eta tresnak izango dituzte, hausnarketa pertsonala landuz. Baina, beti ere, ezberdinen arteko elkarbizitza, errespetua eta enpatia sustatuz. Ikasleek beraien ikuspegi kritikoa proposamen osoan zehar jorratuko dute, UD-aren fase guztietan ikasleen arteko eztabaida landuko baita.

Bestalde, irakurzaletasuna eta euskararekiko jarrera hobea edo positiboa jorratzea lotu beharreko bi helburu dira. Proposamen honetan irakurzaletasuna sustatu nahi baita, eta horretarako euskal HGL erabiliko da. Alegia, ikasleek euskaraz irakurtzeko motibazioa piztea da bi helburu hauen emaitza. Era honetan, ikasleek euskara hizkuntza gozamenerako edo aisialdirako erabilgarria den hizkuntzat hartuko dute eta ez soilik klasean erabiltzeko tresnatzat.

Laburbilduz, GrAL honen helburua berdintasun ekitatiboaren aldeko ikasle kritikoa, irakurzaletasuna eta euskararekiko jarrera positibodunak sustatzen duen unitate didaktiko bat sortzea da.



## 5. Proposamen Didaktikoa

### 5.1 Helburuak

Atal honetan zehar lanean proposaturiko Unitate Didaktikoaren helburuen berri emango da. Proposamen didaktiko honek bi helburu mota ditu: Alde batetik, helburu orokorrak, hau da, proposamen didaktikoaren zimenduak markatzen dituzten oinarrizko ideiak eta baliabideak. Hots, hezkidetzaz, irakurmen dialogikoa eta euskal HGL-rekin loturiko helburuak. Bestalde, *Heziberri 2020*-ko dokumentuan oinarrituz, UD honetan kontuan izango diren oinarrizko zein zehar kompetentzien helburuak adieraziko dira. Alegia, *Hitzik eta hitzik gabeko zein Elkarbizitzarako zehar kompetentzien helburuak eta Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako zehar kompetentziaren helburuak.*

#### 5.1.1 Proposamen didaktikoaren helburu orokorrak

Gaiak	Helburuak
<b>Hezkidetzaz sustatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Sexismoa, genero rolen eta estereotipoen kontra egitea.</li><li>- Emakume erreferentetzat izan.</li><li>- Elkarbizitza, errespetua eta enpatia sustatu.</li></ul>
<b>Iritzi propioa eta kritikoa jorratu eta adierazten ikastea elkarriketaren bidez</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Iritzi propioa eta kritikoa landu.</li><li>- Elkarriketetan errespetua eta enpatia sustatu.</li><li>- Komunikazio gaitasuna landu ("Dime"<sup>2</sup> metodologiaren bidez).</li></ul>
<b>Irakurzaletasuna euskal HGL-ren bidez sustatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Euskal HGL partekatzea eta honetaz gozatzea.</li><li>- Euskararekiko jarrera positiboa sustatu: aisialdian euskaraz gozatzeko materialak eskainiz.</li></ul>

#### 5.1.2 Oinarrizko eta zehar kompetentzien helburuak

Kompetentzia	Helburuak
<b>Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako oinarrizko kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Hitzeko komunikazioa: euskarazko testuak eta dialogoak ahoz eta idatziz ulertzea.</li><li>- Hitzik gabeko komunikazioa: hitzik gabeko informazioa ulertzea (irudiak, keinuak...)</li><li>- Kompetentzia digitala: Tresna digitalak modu sortzaile eta eraginkorrean erabiltzen ikasi (storybird tresna erabiliz, soilik 3. fasean).</li></ul>

<sup>2</sup> Aidan Chamberse (2007) "dime" metodologia hemendik aurrera "esaidazu"-tzat hartuko da.

<p><b>Elkarbizitzarako konpetentzia oinarriko konpetentzia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulermen eta adierazpen dialogikoa lantzea: Norberaren ikuspuntua, sentimenduak eta ideiak adieraztea; eta besteenak ulertzea, errespetatzea eta kontuan hartzea.</li> <li>- Talde lan eraginkorra egitea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldekideen eginbeharrak ikasle bakoitzaren gaitasunak eta nahiak errespetatzen esleitu.</li> <li>- Taldekide bakoitzak bere eginkizunak betetzea.</li> <li>- Erabakiak taldean hartzea, hitzarmenen bidez.</li> <li>- Sortutako gatazkak elkarriketaren, hitzarmenen eta negoziazioaren bidez konpontzea.</li> <li>- Taldekide guztien ikuspuntua, ideiak eta proposamenak entzutea eta balioestea.</li> </ul> </li> <li>- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratorzen diren arauak betetzea.</li> </ul>
<p><b>Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako zehar konpetentzia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.</li> <li>- Norberaren esperientziatik gertueneko esparruetan eraginkortasunez, errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea, unean uneko komunikazio-premiei behar bezala erantzuteko.</li> <li>- Literatura-testuak irakurtzea eta entzutea. Hots, literaturaz gozatzen ikastea, horrek sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko, norberaren hizkuntza-ondarea aberasteko eta identitate kulturala eraikitzeo aukera ematen duen aldetik.</li> <li>- Hizkuntzak komunikaziorako baliabide eraginkortzat eta kultura-ondareztat hartzea, portaera linguistiko enpatikoak garatzeko eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko.</li> <li>- Norbaiten laguntzarekin norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako konpetentzia hobetzeko.</li> </ul>

## 5.2 Edukiak (Heziberri 2020-an oinarrituta)

Proposamen didaktikoaren sekzio honetan UD-an landuko diren edukien azalpena adieraziko da. Eduki hauek Heziberri 2020 dokumentuan oinarrituta daude, berriz ere, soilik UD honetan erabiliko diren konpetentziak kontuan izanik. Hortaz, eduki taula honetan *Hitzik eta hitzik gabeko* zein *Elkarbizitzarako zehar konpetentzien* helburuak eta *Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako diziplina barneko konpetentziaren* edukiak ikusgai egongo dira.

Oinarrizko zehar kompetentziak	Edukiak
<b>Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa lantzea, komunikazioa mota hauek ulertuz eta zuzenki erabiliz.</li> <li>- Kompetentzia digitala jorratzea tresna digitalak modu sortzaile eta eraginkorrean erabiltzen (storybird tresna erabiliz, soilik 3. fasean).</li> </ul>
<b>Elkarbizitzarako kompetentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulermen eta adierazpen dialogikoa lantzea.</li> <li>- Talde lan eraginkorra lortzea .</li> <li>- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.</li> </ul>

Oinarrizko diziplina barneko kompetentziak:	Edukiak
<b>Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia</b>	<p><b>1. Eduki multzoa: Eduki komunak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.), balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).</li> <li>- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.</li> <li>- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).</li> <li>- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.</li> <li>- Norberaren emozioak, komunikazioa eta jokabidea erregulatzea.</li> </ul> <p><b>2. Multzoa: Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Harreman interpersoneletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako ahozko testuak ulertzea eta sortzea: narrazioak, bizipenen pertsonalak, emozio eta iritzien adierazpenak, azalpenak, deskribapenak...</li> <li>- Ahozko testuak ekoiztea helburu hartuta, informazioa modu gidatuan antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea.</li> <li>- Harreman interpersoneletan nahiz hezkuntza-esparruan sortu ohi diren komunikazio-egoeretan eta egoera interaktiboetan parte hartzea eta kooperatzea.</li> <li>- Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren oinarrizko arauak barneratzea: hitz egiteko txanda, gaiari loturik hitz egiteko mekanismoak, besteen jardunari arreta jartzea, besteen iritziekiko errespetua...</li> <li>- Komunikazio-egoeretan modu proaktiboan eta konfiantza osoz aktiboki parte hartzearen aldeko interesa izatea.</li> </ul> <p><b>3. Multzoa: Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Harreman interpersoneletan, hedabideetan, literaturan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko hainbat euskarritako idatzizko testuak ulertzea eta sortzea: oharra, jakinarazpenak, ipuinak, deskribapenak...</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Idatzizko testuak ekoiztea helburu izanda, informazioa modu gidatuan antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea.</li> <li>- Idatziz modu proaktiboan eta konfiantza osoz espresatzearen aldeko interesa izatea.</li> </ul> <p><b>4. Multzoa: Literatura-hezkuntza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbait euskarritan emandako literatura klasikoko eta haur-literaturako lanak (ipuin, kontakizun, antzerki-lan...) modu gidatuan irakurtzea, eta, gero, norberaren esperientziak besteenekin kontrastatzea.</li> <li>- Ipuin eta kontakizun laburrak irakurtzea, entzutea, birsortzea eta ekoiztea.</li> <li>- Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzea.</li> <li>- Beste literatura-adierazpen batzuk ezagutzea eta ekoiztea: ipuinak eta komikia (soilik 3. fasean).</li> <li>- Literatura-testuak irakurtzearen aldeko interesa izatea.</li> </ul> <p><b>6. Multzoa: Hizkuntzaren alderdi soziala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolan euskara erabiltzearekin lotutako egoeretan parte hartzea.</li> </ul>
--	--

### 5. 3 Metodologia

Gradu Amaierako Lan honen sarreran adierazten den moduan, proposamen didaktiko honen gaia Hezkidetza literaturaren bidez lantzea da. Jomuga hau praktikara eramateko proposamenean emakume adierazgarri bat ikusgai jarriko da. Halaber, sexismo zein genero rolen buruzko hausnarketa sustatuko da, HGL-ra tresnatzat hartuz irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza jorratuz. Horretarako, hau da, irakurketa dialogikoa eta berdinen arteko ikaskuntza metodologia errespetatzen dituen ariketak proposatzeko, Aidan Chambersen *Dime: Los niños, la lectura y la conversación* (2007) liburuan adierazten diren ideiak, pautak eta zenbait ariketa kontuan izan dira proposamen didaktikoan zehar. Aldi berean, erabili izan ditugu, Yessica Pamela Ramirez Basurtoren *Fomento a la lectura, alternativas para la formación de pequeños lectores* (2008) doktorego tesian azaldutako ariketak.

Aurreko paragrafoan adierazi den bezala, proposamen didaktiko honen metodologiaren (hau da, berdinen arteko ikaskuntza eta irakurketa dialogikoa) oinarria Aidan Chambersen “esaidazu” ikuspuntua izango da. Metodologia honen ardatza elkarrizketa da. Autoreak azaltzen duen moduan “elkarrizketa funtsezkoa da gure bizitzan, askotan ez baitakigu zer pentsatzen dugun hau ozenki adierazi arte” (2007, 7 or.). Hortaz, UD honen bidez, ikasleek beraien ideiak, sentimenduak eta ikuspuntuak azaltzen eta errespetatzen ikasiko dute.

Baina, metodologia hau hobeto ulertzeko, lehendabizi “esaidazu” esanahiari erreparatu behar zaio. “Esaidazu” metodologiaren helburua ikasleek elkarrizketa naturala, behartu edo derrigortu gabekoa, izatea da. Maiz, helburu hau erraztat hartzen da irakasleen artean eta hau betetzeko irakasleek “zergatik?” galderan babesten dira; baina galdera hau ikasleei

zorrotza, oldarkorra, mehatxagarria, lehiakorra edo aztertzaila iruditu ahal zaie (2007). Hortaz, Chambersek “esaidazu” galdera erabiltzea proposatzen du. “Esaidazu” hitza erabiltzeak irakaslearen kolaboratzeko nahia iradokitzen du, irakasleak benetan jakin nahi duela ikasleak pentsatzen duena azaleratzen du eta elkarrizketa sustatzen du itaunketa edo galdeketa ordeztuz (Chambers, 2007). Hortaz, irakaslea ikasleak pertsona kritikotzat hartuko ditu eta hauek beraien ikuspuntua, pentsamenduak eta ideiak azaltzen ikasteaz gain, bereak zein bere ikaskideenak balioesten ikasiko dute. Gainera, metodologia hau praktikan jarritzeko irakasleek beraien gaitasun komunikatibo eta linguistikoak praktikan jarriko dituzte era xume batean, hizkuntza tresna baliagarritzat hartzen eta UD honen kasuan, euskara baliozko hizkuntzat hartuz.

“Esaidazu” metodologia lantzeko kontuan izan beharreko beste alderdi bat “esaidazu” hiru galdera motak dira: oinarrikoak, orokorrak eta zehatzak. Hasteko, oinarriko “esaidazu” galderen helburua ikasleei irakurketaren zein alderdi harritu dituen jakitea eta testuaren barruan patrioiak bilatzen ikastea da, horrek gogobetetasun handia sortzen baitie ikasleei (Chambers, 2007). Era honetan, elkarrizketa ez da soilik zentratzen gustoko edo ez gustoko izandako alderdietan, elkarrizketa mamitsuagoa izateko. Bestalde, “esaidazu” galdera orokorrak *“hizkuntzaren eta erreferentzien maila handitzen dute, konparazioak ematen dituzte eta elkarrizketara zenbait literatura-lan ulertzen eta konparatzen laguntzen duten ideiak, informazioa eta iritziak ekartzen laguntzen dute”* (Chambers, 2007, 127 or.). Era honetan, ikasleek testuaren ezaugarriak erreparatzen diete testu ezberdinen ezaugarriak barneratuz eta testuan azaltzen den istorioa zehaztapen gehiagoei ulertuz. Azkenik, “esaidazu” galdera zehatzak irakurketa testuaren nondik norakoak, zehaztapenak eta berezitasunen berri izateko eta hauek ulertzeko baliagarriak dira (Chambers, 2007). Halaber, metodologia hau erabiltzerakoan, kontuan izan behar da galdera hauen erabilera progresiboa izan behar dela. Lehendabizi, ikasleek irakurritakoari buruzko istorioen ideia orokorrei buruz hitz egiteko gaitasuna landu behar dute. Ostean, irakurritako testua beste testu batzuekin konparatzen ikasi behar dute testuen ezberdintasun edo berdintasun patrioiak aurkitzeko. Azkenik, landutako testuaren buruzko galdera zehatzak joratu behar dira testu mota horren ezaugarriak ulertzeko eta barneratzeko.

Bestalde, “esaidazu” eta berdinen arteko ikaskuntzaren metodologian, metodologia tradizionaletan ez bezala, irakaslea gidari eta moderatzaile bihurtzen da, ikasleek ikaskuntza prozesuaren protagonistak baitira (Peñalva eta Leiva, 2019). Irakasleak ikasleen solasaldian parte hartuko du soilik ikasleek euren kabuz elkarrizketa aurrera eramanez. Hau da, irakasleak ikasleei galderak egingo dizkie, ikasleak gaien murgiltzeko. Chambersek azaltzen duen moduan “kontua ez da, besterik gabe, irakasleak galderak buruan izatea,

baizik eta elkarrizketarekin bat egiten dituzten galderak egitea, eta horretarako galdera orokorrak edo bereziak erabiltzen jakin behar du, esatear dagoen zerbait ateratzeko edo intuizio hutsez intuitzen duen zerbait adierazten laguntzeko balioko dutela sentitzen duenean” (2007, 131 or.). Gainera, aurretik esan den bezala, irakaslearen eginkizuna begiralearena izango da, metodologia bi hauen helburua ikasleek beraien artean ikastea baita eta ez irakaslea ikasleen prozesu kognitiboaren ardatza izatea (Flecha et al., 2008). Hots, irakaslea ikasleen ikuspuntua, ideiak eta sentimenduen berri izango du baina ez ditu zergatik bereak azaldu behar. Baina salbuespena ikasleek irakaslea elkarrizketaren parte izateko gogoak edo nahiak adierazten dutenean da, irakasleari testuari buruzko galderak eginez. Egoera honetan, irakaslea eta ikasleek jarrera eta eginkizun bera izango dute, elkarrizketan parte hartzea berdinak bezala. Bestalde, irakaslearen beste funtzioa saioak prestatzea da. Zentzu horretan, irakurketa dialogikoa erabiltzerakoan, testuen aukeraketa oso garrantzitsua da (Chambers, 2007). Hortaz, irakasleak kontuan izan beharreko beste alderdi bat metodologia hau erabiltzerakoan HGL-ren ezagutzak dira, marko teorikoaren atalean azaltzen den moduan.

Azkenik, atal honen lehenengo paragrafoan adierazi den bezala, lan honetan proposaturiko UD-ko ariketak Aidan Chambersen (2007) eta Yessica Ramirezzen (2008) lanetan oinarrituta daude. Proposamen honetako lehenengo eta bigarren faseetan, Aidan Chambersek proposaturiko bi ariketa praktikan jarriko dira. Lehendabizi *perpauaren jolasa* oinarritzko “esaidazu” galderak erabiliz eta ondoren, bigarren fasean ipuin biografiko baten irakurketa egin ondoren, “esaidazu” galdera orokorrak erabiliz, elkarrizketa bat egingo da . Azkenik, Ramirezek proposaturiko “*Cómo terminaría si...*” ariketaren moldaketa bat egingo da Chambersek proposaturiko “esaidazu” galdera zehatzak erabiliz.

## 5. 4 Sekuentzia didaktikoa

5.4.1 Fasea: Perpausaren jolasa		
1. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
<b>Ipuinen eta taldeen banaketa</b>	10 min	Irakaslea ikasleei 4 ipuinen portada erakutsiko die, soilik hauen izenburua eta autoreak adieraziz (ikus 9.2 eranskina: 1. faseko ipuin zerrenda). Ondoren, ikasleak 4 taldetan elkartuko dira, irakurri nahi duten ipuinaren arabera.
<b>Ipuinaren irakurketa</b>	15 min	Talde bakoitzak bere kideekin ipuina irakurriko du, talde bakoitzak ipuinaren ale bakarra izango baitu. Ikasleek libreki aukeratu dezakete ipuina nola irakurriko duten: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasle bakoitza ipuinaren zati bat ozenez irakurri.</li> <li>- Taldekide bakarra ipuin osoa ozenez irakurri.</li> <li>- Ikasle bakoitzak bere erritmora ipuina irakurri.</li> </ul>
<b>Oinarrizko "esaidazu" galderak</b>	20 min	Irakasleak ikasle bakoitzari galdera batzuk idatziz eta banaka erantzutea eskatuko die (ikus 9. 3 eranskina: 1. faseko Ikasleentzako oinarrizko galderen fitxa). Galdera hauek "esaidazu" galdera orokorrak izango dira. Ikasleek irakurritako ipuinari buruzko zenbait alderdi azpimarratzeko eta, gainera, ipuinaren esanhaiari buruzko hausnarketa egin dezaten.  Galdera hauek erantzuteko ikasleei hausnarketa pertsonala eta sakona egitea eskatuko zaie, hortaz, ez da espero ikasleek 20 minututan galdera guztiak amaitzea.
2. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
<b>Oinarrizko "esaidazu" galderak</b>	15 min	Ikasleek aurreko saioan erantzundako galderak birpasatu eta egin ez zituztenak amaitu beharko dituzte. Gerta daiteke ikasleen ikuspuntua saioen arteko denborarekin aldatzea, hori horrela bada, ikuspuntu aldaketa erantzun orrian adieraztea eskatuko zaie.
<b>Ipuina deskribatzen</b>	30 min	Irakasleak egindako galderak erantzun eta gero, ikasleek beraien taldekideekin batuko dira erantzunak partekatzeke.  Ondoren, talde bakoitzak irakurritako ipuinaren buruzko azalpen edo deskribapen paragrafo bat idatziko dute, aurretik erantzundako galderak kontuan izanez. Argitu behar da ez dela derrigorrezkoa aurretik egindako galdera guztien erantzuna deskribapen paragrafoan agertzea. Testu txiki honen helburua taldekideek beraien ikaskideei beraiek irakurritako ipuina irakurtzeko gogoak piztea baita eta ez ipuinean azaltzen de istorio osoaren deskribapen edo laburpena ematea.

3. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
Ipuinaren aurkezpena eta galderen txanda	45 min	<p>Talde bakoitzeko kide batek talde osoa idatzitako testu deskriptiboa beraien klase kideei irakurriko die.</p> <p>Gero, ipuina irakurri ez duten ikasleek ipuina irakurritako taldeko kide guztiei ipuinari buruz dituzten zalantza guztiak azaldu ahal dizkiete, galdera txanda bat sortuz. Ipuina irakurritako taldekideek galdera hauek erantzuten saiatu behar dira, baina ez dira behartuta egongo galdera guztiak erantzutera. Galdera hauek erantzutearen helburua irakurzaletasuna sustatzea da eta ez ipuinaren istorio osoa kontatzea.</p>

#### 5.4.2 Fasea: Irakurketa kolektiboa

1. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
Inesa Gaxen-en ipuin biografikoaren irakurketa	10 min	Irakasleak <i>Errebelde 50 bider</i> (Orcasitas-Vicandi et al., 2019) liburuan azaltzen den Inesa Gaxen-en ipuin biografikoa (32 or.) irakurriko die ikasleei.
Ardatz Kronologikoa	10 min	Behin ipuina irakurrita ipuinaren protagonistari gertatzen zaizkion gertaerei buruzko ardatz kronologikoa egingo dute ikasleek ahoz eta irakaslea hau arbelean idatziko du ikasle guztiak ikus dezaten; ipuinaren laburpen bat sortuz.
Oinarrizko zein orokor "esaidazu" galderadun elkarrizketa	25 min <sup>3*</sup>	<p>Gero, irakaslea ikasleek entzundako ipuinari buruzko eztabaida sustatuko du oinarrizko zein orokor "esaidazu" galderak eginez. Aldi berean, genero rolen estereotipoei eta emakumeen ikusgaitasunari buruzko galderak egingo ditu irakasleak (ikus 9.4 eranskina: 2. faseko irakaslearentzako galdera fitxa).</p> <p>Elkarrizketan zehar, ikasleek izango dira protagonistak eta haiek eztabaidaren nondik norakoak kontrolatu edo kudeatuko dituzte. Hala nola ere, irakaslea aurreko paragrafoan adierazitako galdera motak egingo dizkie ikasleei beharrezkoa denean. Hots, ikasleek elkarrizketan interesa galtzen dutenean edo haria galtzerakoan, landu nahi ez diren gaiak buruz denbora larregi hitz egiten denean.</p>

<sup>3</sup> \* Ikasleak gogotsu egotekotan eta beraien arteko dialogo oso interesgarria eta mamitsua izatekotan saioa hedatuko zen, beharrezkoa balitz, 2. fasean hirugarren saio bat gehituz, soilik, "elkarrizketa" atala luzatzeko. Halaber, saioa probetxuzkoa balitz eta ikasleen gustokoa balitz, saioaren dinamika berdina aurrera eraman ahal du irakasleak (noski, dialogoaren galderak moldatuz). Lan honen autorea *Errebelde 50 bider* (Orcasitas-Vicandi et al., 2019) liburuan agertzen diren hurrengo ipuin biografikoak erabiltzea proposatzen du: Felisa Martin Bravo (30 or.), Josune Bereziartu (38 or.), Juana Ines de Abaje (44 or.) eta Marga D'Andurain (76 or.)



5.4.3 Fasea: "Edurnezuri" klasikoa berridazten

1. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
<b>Edurnezuri ipuin klasikoaren irakurketa</b>	10 min	Ikasle bakoitzak ipuinaren kopia bat izango du baina talde irakurketa egingo da. Ipuina irakurtzeko ikasle bolondresak ipuina ahoz irakurriko dute beste ikasleek irakurketa jarraitzen duten bitartean.
<b>Eztabaida</b>	25 min	Aurreko faseetan egin den bezala, ikasleek ipuinari buruzko elkarrizketa izango dute eta irakaslea gidari rola izango du "esaidazu" galderak eginez. Baina oraingoan, "esaidazu" galdera zehatzak (ikus 9.5 eranskina).
<b>Ipuinaren aldaketa ardatzaren aukeraketa</b>	10 min	Ipuinari buruzko eztabaida izan ondoren, ikasleak 3 edo 4 taldeetan banatuko dira (5/7 ikasle talde bakoitzeko) <i>Edurnezuri</i> -ren ipuinaren berridazketa egiteko. Baina ipuinaren aldaketak zehaztu baino lehen, ikasle guztien artean ipuinaren esaldi bat aukeratu beharko dute, esaldi hau beraiek sortuko duten ipuin amaieraren hasiera izan dadin.
2. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
<b>Aldaketak ituntzen</b>	45 min	Atal honetan, ikasleek beraien taldekideekin sortuko duten ipuinaren berridazketaren nondik norakoak adostuko dute. Baita ere taldekide bakoitzaren rola edo eginbeharra, beti ere, taldekideen gaitasunak eta nahiak errespetatuz. Rolak hauek izan daitezke: Idazkaria, bozeramailea, irakurlea, marrazkilaria, moderatzailea, margolaria...
3. Saioaren atalak	Denbora	Jardueraren azalpena
<b>Ipuin berrituak sortzen eta biltzen</b>	45 min	Azkenik, talde bakoitzak bere ipuinaren amaiera sortuko du. Eta taldeek sortutako amaiera komiki edo ipuin ilustratu bezala egin dezakete. Produktu final hau sortzeko aukera anitz izango dituzte ikasleek: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleek beraiek bakarrik sortu dezakete material guztia.</li> <li>- <b>Storybird</b> programa erabili dezakete ipuin digitala egiteko.</li> <li>- <b>Bitmoji</b> aplikazioa edo <b>interneten aurkitutako irudiak</b> erabili dezakete testuinguruak edo pertsonaiak sortzeko eta gero hauek inprimatu eta koloreztatu ditzakete.</li> </ul> <p>Aurreko adibide hauek irakaslea proposatutako aukerak dira, baina ikasleen beste modu edo aukera batzuk proposatzera bultzatuko ditu ikasleak eta hauen proposamenak kontuan izango dira. Hots, ikasleek emandako proposamenak posibleak izatekotan hauek aurrera eramateko aukera emango zaie.</p>

## 5. 5 Ebaluaketa

Proposamen didaktiko honen ebaluazioa egiteko Fons Estevek (2004) proposatutako hiru tresna ezberdin erabiliko dira: irakaslearen ebaluaketa errubrika, irakaslearen egunerokoa eta ikasleei egindako iritzi eta hobekuntza galderak.

Hasteko, irakasleak, unitate didaktiko hauen helburuak eta edukiak kontuan izanik, saioak egin baino lehen ebaluaketa errubrika bat sortuko du (ikus 9.6 eranskina: Ebaluaketa errubrika). Errubrika hau saio edo fase bakoitza amaitu ondoren betetzea gomendatzen da; era honetan, irakaslea dinamika gertatu berri izango ditu eta hauen ebaluaketa sutua eta zorrotza egiteko aukera izango du. Noski, posiblea da faseen lanketan zehar amaitutako saio edo fase bati buruzko iruzkinak izatea, hortaz, nahiz eta errubrika bete izan, irakasleak honen erantzunak moldatzeko edo gehitzeko aukera izango du prozesu osoan zehar.

Bestalde, irakasleak, bere egunerokoa, saioetan zehar deigarriak izan direneko alderdiak edo gertakizunak azalduko ditu. Tresna honen bidez irakaslea saioen xehetasunetan zentratzeko aukera izango du eta ikasleak indibidualki ebaluatu.

Azkenik, behin fase guztiak amaitu direnean, irakasleak ikasleei zenbait galdera egingo dizkie egindako saioei buruz (ikus 9.7 eranskina: Ikasleei egindako ebaluaketa galderak). Oso garrantzitsua da ebaluaketa atal hau 3. fasea amaitu bezain laster ez egitea, hobe baita ikasleei hausnarketarako denbora ustea, baita ere ikasitakoa barneratzeko eta bereganatzeko. Halaber, tresna honen bidez ikasketa prozesu oso ebaluatzeaz gain ikasleen ikuspuntuaren ebaluaketa emango da, hortaz, irakaslea gabetu ez deneko gauzei buruzko ebaluaketa egingo da.

## 6. Konklusioak

Gaur egun hezkidetza eta HGL pil-pilean dauden gaiak dira; hori dela eta, gai hauei buruzko gero eta ikerketa lan zein proposamen didaktiko gehiago egiten dira. Gure gizarteak, oraindik, ekitatearen aldeko aurrerapen edo ekintza asko egin behar ditu eta hauek garatzeko eskola ezinbesteko zubia edo tresna da. Maiz esan baita gizarte bat aldatzeko, lehendabiziko pausoa hezkuntzan edo eskoletan eman behar dela. Gaian murgilduz, hezkidetza ez da klasean landu beharreko gai bat, baizik eta ikasleen eskubide bat eta heziketa komunitatearen betebeharra. Hots, hezkidetza eskolaren egunerokotasunean landu beharreko alderdia da eta ez soilik egun zehatz batean unitate didaktiko baten bidez landu beharrekoa. Hortaz, Gradu Amaierako Lan honen berezitasuna, hezkidetza gaia euskal HGL-ren bidez lantzeko proposamena sortzea izan da.

Elkarbizitza emateko, ikasleen arteko ekitatea egon behar da, hau da, hezkidetza sustatu behar da. Hezkidetza gaia lantzeko, proposamen honetan zehar genero-rol estereotipo eta sexismoaren kontrako jarrera sustatzen da. Alde batetik, lehenengo eta bigarren faseetan proposatutako irakurketa materialak hauen kontra egiten dutelako; eta beste aldetik, hirugarren fasean jarrera edo ikuspuntu matxistadun testua berridazteko aukera ematen zaielako ikasleei. Aurreko guzti hau klasean landutako hausnarketa ahalbidetzen duten elkarrizketen bidez jorratuko da; hezkidetza eta ikuspegi kritikoa sustatuz.

Bestalde, lan honetan ikasleei beraien izaera eta ikuspuntu propioa eratzeko tresna eta aukerak eman dira, haien ikuspuntu kritiko eta propioa sustatuz. Askotan, hezitzaileok, errespetatu beharreko curriculumean gehiegi zentratzen gara proposamen didaktikoak egiterakoan; curriculum betetzeko presio handia dugu eta badirudi eskolaren funtzioa ikasleak ezagutza tekniko betetzea dela. Baina, heziketa komunitatean curriculumaren jakintza tekniko hainbesteko garrantzia edo denbora eskainiz ikasleentzat beharrezkoak diren beste alderdiak baztertzen dira; haien ikuspuntu kritiko alegia. Proposatutako UD-an ikasleei beraien izaera eta ikuspuntu propioa eratzeko tresnak eta aukerak ematen dira, solasaldi eta eztabaida aukera anitz ematen baitira. "Esaidazu" metodologiaren bidez, klasean landutako ipuinen testu ezaugarrietan oinarritu beharrean ikasleek ipuinetan adierazten diren gaiei buruzko hausnarketa egingo dute. Lanketa hau gogoeta interpersonala zein intrapersonala sustatuko du, hortaz, ikasleek beraien komunikazio gaitasuna jorratuko dute elkarbizitzarako kompetentzia lantzen duten bitartean. Solasaldi bat erabilgarria edo eraginkorra izateko, parte-hartzaileek komunikatzeko ahalmena izan behar dute eta komunikazio hori eraginkorra izateko elkarbizitza eman behar da, partaideen arteko errespetua eta enpatia landuz.

Espainia ikasturtea errepikatzen duten eta eskola uzten duten ikasleek beteta dago, herri honetako ikasle gehienek ez baitute oinarrizko irakurmen gaitasunak barneratzen (Farreras, 2021). Hots, irakurritako testuak ezin dituzte ulertu edo interpretatu. Hori dela eta, lan honetako proposamen didaktikoari esker, euskaraz idatzitako ipuinen erabileraren bidez eta “esaidazu” metodologia errespetatuz, ikasleek beraien irakurmen gaitasun komunikatiboa landuko dituzte. Hitzezko zein hitzik gabeko ulermena eta adierazpena ere jorratuko dute. Alde batetik, literatura lanen irakurketa kolektiboa (lehenengo fasean) zein norbanakoak (bigarren eta hirugarren faseetan) eginez. Baita ere, ikasle bakoitza bere ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egitea sustatuko da. Halaber, irakurketa landu ondorengo hausnarkeko dira dialogikoen bidez egunerokotasunean erabilitako komunikazioa tresnak edo erak landuz. Bestalde, “esaidazu” metodologiaren bidez ikasleek testu bati buruzko ulermena progresiboki landuko dute. Oinarrizko “esaidazu” galderak erantzuterakoan ipuinari buruzko iritzia ematen da; aldiz, “esaidazu” galdera orokorrak lantzerakoan testuaren ideia zein ezaugarri orokorretan zentratuko dira; eta amaitzeko, “esaidazu” galdera zehatzen bidez ikasleek testuaren ezaugarriari eta gairi buruzko hausnarketa zorrotza egiten ikasiko dute.

Azkenik, lan honek proposatzen duen UD-ri esker ikasleek euskaraz idatzitako literatur testuak disfrutatuko dituzte beraien irakurmen gaitasuna landuz, irakurzaletasuna sustatuz eta era subliminal batean euskaraz gozatuz. Horrela, hizkuntza honi klasetik kanpoko baliagarritasuna emango zaio, hizkuntzarekiko jarrera hobetuz eta hizkuntzaren erabileraren bidez etorkizunean hau erabiltzeko konfiantza sortuz. Unitate didaktikoaren hiru faseetan ipuinen lanketa eman da, hauek irakurriz, hauei buruzko hausnarketa eginez eta azkenengo fasean ipuin klasiko baten berridazpena eginez. Gainera, GrAL honetako UD-an HGL-ren erabilera ez da guztiz didaktikoa izango, aukeratutako ipuinak ez baitute helburu didaktikorik baizik eta gozamina sortzeko helburua. Euskal HGL maiz erabiltzen den tresna didaktikoa izaten da. Baina, euskararen aldeko jarrera positiboa sustatu nahi bada hobe izan daiteke alderdi didaktikoa murriztea edo baztertzea eta ardatza testuen gozamenen jartzea.

Laburbilduz, Gradu Amaierako Lan honen bidez klasean hezkidetzeta sustatu, ikuspegi propio eta kritikoa indartu eta hau adierazteko gaitaduna landu, irakurzaletasuna piztu eta euskararekiko jarrera hobetu egingo duen unitate didaktikoa gauzatu da.

## 7. Mugak eta lana hobetzeko proposamenak

Lan honetan proposatzen den UD-aren arrakasta testuinguruarekin oso lotuta dagoela esan daiteke, proposamen honen muga bat hartzaileak, hauen hezitzaileak eta inguruak baitira. Alegia, irakasleak ikasleengan eragina izan dezake, baina, gero ikasleek beraien etxeetara bueltatzerakoan beraien hezitzaileek kontrako jarrera badute, irakaslea klasean sustatuko ideien balioa edo eragina gutxitu dezakete. Egoera berdina eman ahal da eskola irakaslea proposaturiko ideologiaren alde ez badago eta irakaslea hezkidetzaren aldeko aldaketak egiteko gaitasunaz pribatzen badute. Arazo edo traba hauei aurre egiteko ardatza eskola komunitatearen hitzarmenean eta formakuntzan jarri behar da. Hau da, irakaslea ikasleen eta eskolaren testuinguruari buruzko informazioa izan behar du eta hau errespetatu behar du. Halaber, talka-kulturala edo ideologikoa ekiditzeko edo hau gainditzeko, landu nahi den gaiari buruzko formakuntza ikasleei, irakasleei, eskolako langileei, familiei eta auzoari zuzenduta egon ahal da, esaterako Emakunde erakundearen eskutik, edota Berritzegunetik eskaintzen diren formakuntzaz baliatuz. Zailtasun hau emateak ez du esan nahi irakasleak proposatutako jarduerak baliagarritasunik ez izatea, irakasleak ikasleei mundua beraien ikuspegi propioetik aztertzeko tresnak eta aukera ematen baitie, baina, eskola eta ikasleen testuinguruan kohesio ideologikoa egotea aproposena da.

Bestalde, lana garatzeko momentuan euskal HGL-n lan feministak aurkitzeko zailtasun handiak egon dira. Hots, sexismo, genero-rolen eta estereotipazioaren kontrako gero eta lan gehiago egiten dira baina umeei zuzendutakoak ez dira asko. Gainera, euskaraz idatzitako aisialdirako material literario gutxi dira, euskal HGL gehiena oso didaktikoa baita. Esaterako, letrak, fonemak edo hiztegi orokorra ikasteko materialak. Beraz, traba honi aurre egiteko aisialdirako euskarazko literatura lan feminista gehiago sortzea aproposa izango zen eta soluzio hau sostengatzeko GrAL honen 3. fasean egin den bezala, eskolan bertan merkatuan aurkitu ezin diren edo aurkitzeko zaiak diren materialak sortu ahal dira. Gainera, klaseak sortutako materialak eskola-komunitatearekin zein beste eskolekin partekatu ditzake, edo, posiblea balitz, sortutako materialak argitaratu.

Gainera, lan honetan kontuan izan beharreko beste muga edo zailtasuna UD-a praktikan jarriko duen irakaslearen hezkidetzeta edo jakintza feministak eta jarrera dira. Hau da, hezkidetzeta gaiari buruzko gero eta informazioa eta ikerketa gehiago daude, baina, gaian murgiltzeko eta honi buruzko lanketa egiteko, irakasleak bere jarrera eta izaerari buruzko hausnarketa zorrotza eta sakona egin behar du. Hezkidetzeta sustatzeko irakaslea tresna eta informazio askoz baliotu ahal da, baina bere jarrerak bere ekintzekin bat egin beharko du, kohesioa egon dadin. Adibidez: genero rolen estereotipoen kontra egiteko gai izan behar da

bere egunerokotasunean, genero eta estereotipoak ez ditu babestuko eta saiatuko da emakumeen erreferentziak erabiltzen.. Irakaslearen ekintzak eta jarrera ikasleentzako adibideak izan behar dira Hortaz, irakaslearen aldetik dekonstrukzioaren<sup>4</sup> aldeko jarrera irekia egon behar da eta, hau lortzeko, irakaslea ahalegin handiak egiteko prest egon behar da. Aldiz, zailtasun honi aurre egiteko gaitasuna pertsona orok du, gaiari buruzko formazioa eta hausnarketa pertsonal sakonaren bidez zailtasun edo limite hau irakaslearen indargunea eta abantaila bilakatu ahal da.

Laburbilduz, lan honen mugarik handiena gizartearen korrontearen kontra egiteko beharra da, UD-an parte hartuko dutenek betidanik ikasitako “ideiei” buruz hausnartuko dute eta hori ez da inoiz erraza. Baina, hainbat talderen (irakasleak, familiak, argitaletxeak, auzoko talde feministak...) laguntzarekin, ahaleginarekin eta prestakuntzarekin unitate honetan adierazten diren mugei aurre egin ahal zaie eta etorkizuneko belaunaldiek hezkidetzaz bermatzeko ahalmena beraganatuko dute.

---

<sup>4</sup> Dekonstrukzioa: Déconstruire hitz frantsesetik datorren aditza da; analisi intelektual baten bidez, egitura kontzeptual jakin bat desmuntatzean datza. Dekonstrukzioa teoria edo diskurtso baten anbigutasuna, akatsak, ahuleziak eta kontraesanak agerian utziz gauzatzen da (Euskaltzaidiaren hiztegia 20020).

## 8. Erreferentziak

- Alvarez-Uria, A. (2008). Un paseo por la literatura infantil y juvenil vasca escrita por mujeres. UPV/EHU. Hemendik berrezkuratuta: <https://docplayer.es/79503535-Un-paseo-por-la-literatura-infantil-y-juvenil-vasca-es-crita-por-mujeres.html>
- Bakhtin, M. (1986). *The problem of speech genres. In Speech genres and other late essays.* University of Texas Press, 60-102.
- Barreto, A., Brítez, B. Lo Bianco, M., Quevedo, C. eta Riquelme, Q. (2014). *Pensamiento Crítico en el Paraguay. Memoria del Ciclo de Conversatorios 2014.* Fundación Rosa Luxemburgo.
- Berenguer, J. eta Villavicencio, L. (2017). *¿Para qué sirve la literatura en la escuela?*. Editorial UNSJ.
- Blat Gimeno, A. (1994). Informe sobre la igualdad de oportunidades educativas entre los sexos, *Revista Iberoamericana de Educación*, (6), 123-145. <https://rieoei.org/RIE/article/view/1210>
- Brecht, B. (1984). *Poemas y canciones.* Alianza/Club Internacional del Libro.
- Cassany, D. (2006). *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea.* Anagrama.
- Castillero, O. (2021). *Los 20 tipos de lectura más importantes.* <https://psicologiymente.com/psicologia/tipos-de-lectura>
- Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *Revista de filología y didáctica*, 12(1), 157-16.
- Chambers, A. (2007). *Dime: Los niños, la lectura y la conversación.* Fondo de Cultura Económica.
- Colomer, T. (2020). La literatura infantil. La minoría dentro de la literatura. La fuerza de las minorías. 32.congreso internacional de IBBY. Santiago de Compostela.

Eagleton, T. (1998). *Una introducción a la teoría literaria*. Fondo de Cultura Económica..

Etxaniz, X., Fernandez-Artigas E. eta Rodriguez-Fernandez A., (2019). Imagen de la mujer en la literatura infantil juvenil vasca contemporánea. *Ocnos*, 18(1), 63-72. [10.18239/ocnos\\_2019.18.1.1902](https://doi.org/10.18239/ocnos_2019.18.1.1902)

Etxaniz, X. (2011). La transmisión de valores en la literatura, desde la tradición oral hasta la LIJ actual. *Ocnos*, 7(1), 73-83. [10.18239/ocnos\\_2011.07.06](https://doi.org/10.18239/ocnos_2011.07.06)

Euskaltzaindiaren hiztegia. (2020). Literatura. Euskaltzaindiaren hiztegia. Hemendik berreskuratua:  
[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?antzekoak=ez&option=com\\_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai&sarrera=literatura](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai&sarrera=literatura)

Euskaltzaindiaren hiztegia. (2020). Dekonstrukzioa. Euskaltzaindiaren hiztegia. Hemendik berreskuratua:  
[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?antzekoak=ez&option=com\\_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai&sarrera=literatura](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu&bila=bai&sarrera=literatura)

Eusko Jaurlaritza. (2013). Hezkuntza-Sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana. Hemendik berreskuratua:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/coeducacion/920006e\\_Pub\\_EJ\\_hezkidetzaren\\_plana\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetzaren_plana_e.pdf)

Eusko Jaurlaritza. (2018). Hezkidetzaren Plana, EAE-ko Hezkuntza sistemarako II.hezkidetzaren plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023. Hemendik berreskuratua:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/coeducacion/92020191e\\_II\\_hezkidetzaren\\_plana\\_berdintasuna\\_eta\\_tratu\\_onaren\\_bidean\\_2019\\_2023.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/92020191e_II_hezkidetzaren_plana_berdintasuna_eta_tratu_onaren_bidean_2019_2023.pdf)

Farreras, C. (2021). *Comprender (o no) un texto condiciona el éxito escolar*. Hemendik berreskuratua:  
<https://www.lavanguardia.com/vivo/20210406/6628978/ensenar-leer-reducir-fracaso-escolar.html>



Fernández-Artigas, E., Etxaniz, X., eta Rodríguez-Fernández, A. (2019). Imagen de la mujer en la Literatura Infantil y Juvenil vasca contemporánea. *Ocnos*, 18(1), 63-72. [https://doi.org/10.18239/ocnos\\_2019.18.1.1902](https://doi.org/10.18239/ocnos_2019.18.1.1902)

Filosofía & Co. (2021). *Feminismo*. Taugenit.

Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir. Alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en la escuela*. La Galera.

Giménez, P. (2016). La coeducación en la escuela: análisis del impacto de una propuesta educativa. [Gradu amaierako lana]. Valladolideko Unibertsitatea, Hezkuntza fakultatea.

Graziosi, M. (2004). En los orígenes del machismo jurídico. La idea de inferioridad de la mujer en la obra de Farinaccio. Hemendik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1036970>

Gutierrez, R. (2016). *Manual de literatura infantil y educación literaria*. Editorial de la Universidad de Cantabria.

Isabella Cosse (2008). La lucha por los derechos femeninos: Victoria Ocampo y la Unión Argentina de Mujeres (1936). *Revista Humanitas*, XXVI (34). <https://www.aacademica.org/isabella.cosse/11>

Kazabon, A. (2003). *Urtziren diarioa*. Gaztetxo.

Oinarrizko hezkuntzako curriculum (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea), Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 22a (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9, 15-281 or.). Hemendik berreskuratua: [http://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/decreto/bopv2\\_01600141/eu\\_def/index.shtml](http://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/decreto/bopv2_01600141/eu_def/index.shtml)

Organización de las Naciones Unidas. (2015eko irailaren 25a). Naciones Unidas: Objetivos de desarrollo sostenible. Hemendik berreskuratua: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

- Osoro, J. (2009). *Ezequiel*. Bihotz taupadak.
- Pallarés, M. (2019). Conquistar la igualdad: coeducación hoy. *Tendencias pedagógicas*, 34 (1), 1-4. <https://doi.org/10.15366/tp2019.34.001>
- Peñalva Vélez, A. eta Leiva Olivencia, J. J. (2019). Metodologías cooperativas y colaborativas en la formación del profesorado para la interculturalidad. *Tendencias Pedagógicas* 33 (1), 37-46. <https://doi.org/10.15366/tp2019.33.003>
- Piemme, E. (2009). *Geronimo Stilton*. Grupo planeta.
- Ramirez, Y. (2008). *Fomento a la lectura, alternativas para la formación de pequeños lectores*. [Doktorego tesia]. Universidad Pedagógica Nacional Ajusco.
- Sánchez, A. eta Iglesias, A. (2008). *Currículum oculto en el aula: estereotipos en acción. Educar en la ciudadanía. Perspectivas feministas*. Catarata.
- Sánchez, G. (2015). Aprendizaje entre Iguales y Aprendizaje Cooperativo: Principios Psicopedagógicos y Métodos de Enseñanza. *Revista Ensayos Pedagógicos*, 10(1), 103-123. <https://doi.org/10.15359/rep.10-1.5>
- Sánchez, M., Morales, M.A. eta Rodríguez, M.N. (2017). Fortalecimiento de la creatividad en la educación preescolar orientado por estrategias pedagógicas basadas en el arte y la literatura infantil. *Zona Próxima* 26, 61-81
- Sau, V. (2000). Diccionario ideológico feminista. *Icaria* 1, 121-122.
- Subirats, M. (2017). *Coeducación, apuesta por la libertad*. Ediciones Octaedro.
- Umaña, S.A. (2004). Hacia una educación no sexista. *Revista Electrónica Actualidades Investigativas en Educación*, 4(2), 1-14. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=44740217>
- Valls, R., Soler, M. eta Flecha, R. (2008). Lectura dialógica: interacciones que mejoran y aceleran la lectura. *Revista Iberoamericana de Educación* 46, 71-87.

Vigotsky, L.S. eta Cole, M. (1978). *Mind in Society. The Development of Higher Physiological Processes*. Harvard University Press.

Zubeldia, I. (2003). Haur literatura: Kritika eta zenbait gogoeta. *Hegats* 33, 55-71

## 9. Eranskinak

### 9.1 Eranskina: NBE-aren Garapen Iraunkorreko Helburuen eskema



NBE (Nazio Batuen Erakundea). (2015). Garapen Iraunkorreko Helburuak. Hemen berreskuratua: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>

### 9.2 Eranskina: 1. faseko ipuin zerrenda

- Arturo eta Klementina (Adela Turin, Kalandraka).
- Bonobo betaurrekodunen egiazko historia (Adela Turin, Kalandraka).
- Arrosa Karamelua (Adela Turin, Kalandraka).
- Zorioneko Hondamendia (Adela Turin, Kalandraka).

### 9.3 Eranskina: 1. faseko ikasleentzako oinarritzko galderen fitxa

- Ipuinean zerbait deigarria aurkitu duzu? Pertsonaia bat, paisaia bat, hitz bat..?
- Zer ez duzu gustokoa izan?
- Ipuin hau irakurtzerakoan, beste ipuin bat etorri zaizu burura?
- Ba al dago ipuin honetan inoiz beste liburu batean ikusi ez duzun zerbait? Harritu zaituen zerbait?
- Ipuinean al dago zerbait ez duzuna ulertu (istoriari buruz, irudiak...)?

## 9.4 Eranskina: 2. faseko irakaslearentzako galdera fitxa

Oinarrizko "esaidazu" galderak / "Esaidazu" galdera orokorrak /  
Hezkidetza lantzeko galderak

- Liburua lehen aldiz ikusi zenutenean, irakurri aurretik ere, zer liburu-mota izango zela uste zenuten? Irakurri ondoren, espero zenutena bete al da?
- Ipuinean al dago zerbait ez duzuna ulertu (istoriari buruz, irudiak...)?
- Ipuinean zerbait deigarria aurkitu duzue? Pertsonaia bat, paisaia bat, hitz bat..?
- Zer ez duzue gustokoa izan? Egileek liburuaren zer hobetuko litzatekeen galdetuko balizute, zer esango zenieke?
- Irakurtzen ari ginen bitartean, edo harengan pentsatzen zenutenean, aurkitu zenuten hitzik edo esaldirik, edo hizkuntzarekin zerikusia duen beste zerbait, zuen gustokoa izan dena? Eta gustatu ez zaizuenik?
- Irakurri al duzue hau gogorarazten dizuen beste historia edo ipuinaren bat? Zertan dira antzekoak? Zertan bereizten dira? Harritu zaituen zerbait egon al da ipuinean?
- Adierazten al da zuei gertatu zaizuen zerbait liburu honetan?
- Egileak ezagutzen zenituzten? Irakurri dituzu autore hauen beste libururen bat?
- Dakizuenez, istorio hau egiazko da, Inesa Gaxenek emakume erreala izan zen eta egoera honetan aurkitu zuen bere burua. Uste al duzue, Inesa bezalako egoerak bizi izan zituzteneko emakume asko egon zirela antzinan? Eta orain, emakumeek halako jasарpen edo erasoak bizitzen al ditugu?
- Ipuin biografiko hau irakurri baino lehen sorginei buruzko ze ikuspegi zenuten? Ipuina irakurri ondoren ikuspegi hori aldatu al da, nola?
- Ze pertsonaia agertzen dira istorian? (Inesa, zorgintzat hartzen zuteneko beste bi emakume, herriko gendea eta gizonezko epaileak). Konturatu zarete nola ez dira emakume epailerik agertzen? Zergatik izango da hori?
- Zuen herrian halako egoerarik egongo balitz, hau da, emakume bat zorgintzat hartuko balukete zuen herriko gendea eta hori pentsatzeagatik herritik bota nahiko balukete, zuek zer egingo zenukete? Eta zorgintzat hartzen duten emakume hori zuen ezaguna, laguna edo familiakoa bada?
- Egileak ezagutzen zenituzten? Irakurri dituzu autore hauen beste libururen bat?
- Norbaiti gomendatuko zenioke? Zein laguni? Zer esango zenioke irakurtzeko gogoia izan dezan?

## 9.5 Eranskina: 3. faseko irakaslearentzako galdera fitxa

### “Esaidazu” galdera zehatzak / Hezkidetza lantzeko galderak

- Ba al dago ipuinean zerbait ulertu ez duzuen? Hitz bat, irudi bat...?
- Non gertatzen da istorioa? Ba al dago horrelako lekuri gure munduan?
- Istorioa zenbat denbora irauten duela uste duzue? Nola dakizue? Garrantzitsua da pasatzen den denbora?
- Nork kontatzen du istorioa? Nola dakizue?
- Nor da istorioaren protagonista?
- Uste al duzue Edurnezuri zoriontsua zenik istoriaren hasiera? Eta ipotxeekin bizi zenean?
- Ipuina luzeagoa izango balitz, nola uste duzue Edurnezurik biziko zela printzearekin ezkondu ondoren? Ze gauza egingo lituzke?
- Zein pertsonaia izan da interesgarriena?
- Posiblea izango zen Edurnezurik ipotxeekin bizi zen bitartean beraiekin meatzera joatea lanera? Erantzuna baiezkoa balitz, nor egingo lituzke etxeko eginbeharra?
- Ze arrazoi izan ditzake erreinuko erregina Edurnezuri gorrotatzeko? Zergatik izan behar da erregina erreinuko emakumerik politena?
- Nola izan daiteke printzea Edurnezuriz maitemintzea hau ezagutu gabe, soilik begibistaz?
- Gustatuko litzaizueke protagonistak edo beste pertsonaiak bizitako egoerak bizitzea? Zeintzuk? Zergatik?
- Ipuinean agertzen diren irudiei zerbait komentatu nahi duzue? Zuen gustokoak izan dira? Ba al dago ulertu ez duzuen irudirik? Eta aldatuko zenuketen irudirik?
- Ze atal hartuko dugu gure ipuin berrien ardatzat edo hasieratzat?

## 9.6 eranskina: Ebaluazio errubrika

Ikaslearen izena eta abizena: _____	Baxua / Gutxi / Ez	Ertaina / Gutxi gorabehera	Altua / Asko / Bai
<b>1. Fasea: Perpausen jolasa</b>  <b>1. saioa</b>  <b>Ipuinen eta taldeen banaketa</b>			
Taldeak egiterako orduan, gatazkak sortu baldin badira, hauek kudeatzen eta konpontzen sailtu da.			
<b>Ipuinaren irakurketa</b>			
Ahozko diskurtsoak ulertu ditu.			
Idatzizko diskurtsoak ulertu ditu.			
Ikus-entzunezko diskurtsoak ulertu ditu.			
<b>Oinarrizko “esaidazu” galderak</b>			
Bere ikuspuntua idatziz adierazteko gai izan da.			
Idea berriak eta originalak adierazi ditu.			
<b>2. Saioa:</b>  <b>Oinarrizko “esaidazu” galderak</b>			
Sexismoa, genero rolen eta estereotipoen gaiei buruzko hausnarketa sakona egin du.			
Euskararen idatzizko erabilera aproposa egin du: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Falta ortografikorik egin ditu.</li> <li>- Kohesiodun esaldiak idatzi ditu.</li> </ul>			
Galdera guztiak erantzun ditu.			
<b>Ipuina deskribatzen:</b>			
Ariketan parte hartu du.			
Bere iritzi propioa adierazi egin du eta hau argudiatzeko ahalmena erakutsi du.			
Hitz egiteko txandak errespetatu ditu.			
Ikaskideen ikuspuntua ulertu eta errespetatu du.			
Sexismoa, genero rolen eta estereotipoen gaiei buruzko hausnarketa sakona egin du.			
Euskararen erabilera aproposa egin du.			

<b>3. Saioa:</b>			
<b>Ipuinaren aurkezpena eta galderen txanda</b>			
Dialogoan parte hartu du.			
Bere iritzi propioa adierazi egin du eta hau argudiatzeko ahalmena erakutsi du.			
Hitz egiteko txandak errespetatu ditu.			
Kohesiodun galderak egin ditu.			
Ikaskideek egindako erantzunak kohesioarekin erantzun ditu.			
Ikaskideen ikuspuntua ulertu eta errespetatzen du.			
Sexismoa, genero rolen eta estereotipoen gaiei buruzko hausnarketa sakona eta kritikoa egin du.			
Euskararen erabilera aproposa egin du.			
Ikaskideek aurkeztutako ipuinak irakurtzeko motibazioa eta interesa adierazi du.			

<b>Ikaslearen izena eta abizena:</b> _____	<b>Baxua / Gutxi / Ez</b>	<b>Ertaina / Gutxi gorabehera</b>	<b>Altua / Asko / Bai</b>
<b>2. Fasea: Irakurketa kolektiboa</b>			
<b>1. saioa</b>			
<b>Inesa Gaxen ipuin biografikoa irakurri</b>			
Irakaslea ipuina irakurtzerakoan isilik eta adi egon da.			
Ahozko diskurtsoak ulertu ditu.			
Idatzizko diskurtsoak ulertu ditu.			
Ikus-entzunezko diskurtsoak ulertu ditu.			
<b>Ardatz Kronologikoa</b>			
Ariketan parte hartu du.			
Dinamikan ekarpen baliagarriak egin ditu.			
Ariketaren dinamika (ardatz kronologikoa) ulertu du.			
<b>Elkarrizketa</b>			
Dialogoan parte hartu du.			



Bere iritzi propioa adierazi egin du eta hau argudiatzeko ahalmena erakutsi du.			
Hitz egiteko txandak errespetatu ditu.			
Kohesiodun galderak egin ditu, elkarrizketaren dinamika eta erritmoa bideratuz.			
Ikaskideek eta irakaslea egindako erantzunak kohesioarekin erantzun ditu, elkarrizketaren dinamika eta erritmoa bideratuz.			
Ikaskideen ikuspuntua ulertu eta errespetatu du.			
Ikaskideen ikuspuntua bere iritzi propioa sortzeko edo moldatzeko erabili du.			
Sexismoa, genero rolen eta estereotipoen gaiei buruzko hausnarketa sakona eta kritikoa egin du.			
Euskararen erabilera aproposa egin du.			
Eztabaidak egiteko motibazioa eta interesa adierazi du.			

<b>Ikaslearen izena eta abizena:</b> _____	<b>Baxua / Gutxi / Ez</b>	<b>Ertaina / Gutxi gorabehera</b>	<b>Altua / Asko / Bai</b>
<b>3. Fasea: Edurnezuri klasikoa berridazten</b>			
<b>1. saioa</b>			
<b><i>Edurnezuri ipuin klasikoaren irakurketa</i></b>			
Banaka, isilik eta adi irakurri du..			
Ahozko diskurtsoak ulertu ditu.			
Idatzizko diskurtsoak ulertu ditu.			
Ikus-entzunezko diskurtsoak ulertu ditu.			
<b>Eztabaida</b>			
Dialogoan parte hartu du.			
Bere iritzi propioa adierazi egin du eta hau argudiatzeko ahalmena erakutsi du.			
Hitz egiteko txandak errespetatu ditu.			
Kohesiodun galderak egin ditu, elkarrizketaren dinamika eta erritmoa bideratuz.			
Ikaskideek eta irakaslea egindako erantzunak kohesioarekin erantzun ditu, elkarrizketaren dinamika eta erritmoa bideratuz.			

Ikaskideen ikuspuntua ulertu eta errespetatu du.			
Ikaskideen ikuspuntua bere iritz propioa sortzeko edo moldatzeko erabili du.			
Sexismoa, genero rolen eta estereotipoen gaiei buruzko hausnarketa sakona eta kritikoa egin du.			
Euskararen erabilera aproposa egin du.			
Eztabaidak egiteko motibazioa eta interesa adierazi du.			
<b>Ipuinaren aldaketa ardatzaren aukeraketa</b>			
Aukeraketan parte hartu du.			
Bere iritz propioa adierazteko eta hau argudiatzeko ahalmena erakutsi du.			
Ikaskideen ikuspuntua ulertu eta errespetatu du.			
Hitz egiteko txandak errespetatu ditu.			
Euskararen erabilera aproposa egin du.			
<b>Taldearen izena:</b> _____	<b>Baxua / Gutxi / Ez</b>	<b>Ertaina / Gutxi gorabehera</b>	<b>Altua / Asko / Bai</b>
<b>2. saioa</b>			
<b>Aldaketak ituntzen</b>			
- Talde lan eraginkorra egin dute: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldekideen eginbeharrak ikasle bakoitzaren gaitasunak eta nahiak errespetatzen esleitu.</li> <li>- Erabakiak talde bezala hartu dira, hitzarmenen bidez.</li> <li>- Gatazkak sortu baldin badira, hauek elkarrizketaren, hitzarmenen eta negoziazioaren bidez konpondu dira.</li> <li>- Taldekide guztien ikuspuntua, ideiak eta proposamenak entzun eta balioetsi dira.</li> </ul>			
Hitz egiteko txandak errespetatu dituzte.			
Euskararen erabilera aproposa egin dute.			
Idea original eta berriak proposatu dituzte.			
Landutako gaiekin eta ipuinarekin kohesioa duten aldaketak proposatu dituzte; sexismoa, genero rolen eta estereotipoen gaiei buruzko hausnarketa sakona eta kritikoa eginez.			

### 3. saioa

#### Ipuin berriak sortzen eta biltzen

Talde lan eraginkorra egin dute: <ul style="list-style-type: none"><li>- Taldekide bakoitzak bere eginkizunak bete ditu.</li><li>- Ikasleek beraien eginbeharrak betetzeko bere ikaskideei laguntza eskatu eta eskaini dute.</li><li>- Kohesiodun lana sortu dute (testua, irudiak eta abar bat eginez)</li></ul>			
Sortutako ipuinean ideia original eta berriak azaldu dituzte.			
Ipuinaren istorioan ikasleek landutako gaiei buruzko hausnarketa sakona egin dutela adierazten da.			
Euskararen erabilera egokia egin dute: <ul style="list-style-type: none"><li>- Ipuinetan ematen den hiztegia erabiliz.</li><li>- Falta ortografikorik ez dituzte egin.</li></ul>			

#### 9.7 eranskina: Ikasleei egindako ebaluaketa galderak

- Zuen gustokoa izan dira egun hauetan zehar irakurritako ipuinak? Zein izan da zuen gustokoa? Zein izan da deigarriena? Eta aspergarriena?
- Egun hauetan zehar egin ditugun elkarrizketetan pentsatzerakoan, gogoratzen zarete nola sentitu zineten? Zer hobetu dezakegu talde bezala hizketaldi hauetan guztiok hobeto sentitzeko?
- Jarduera mota hauek errepikatu nahi dituzue?
- Zer hobetuko zenukete orokorrean egindako irakurketa eta elkarrizketa hauei buruz?
- Zuen euskarareiko jarrera aldatu da? Baliagarriagoa ikusten duzue euskara? Hemendik aurrera liburu bat aukeratzerakoan euskarazko bertsioa irakurtzeko nahia piztu zaizue?
- Ipuin edo liburu gehiago irakurtzeko nahia duzue? Zeintzuk?